


EKARRI ARMAK. ETAREN JARDUN ARMATUAREN BUKAERAREN KRONIKA

Imanol Murua Uria
Elkar-Berria, 268 or.
Donostia, 2015

Imanol Murua Uriaren liburuak Euskal Herriko eta Espainiako historia garaikidearen pasarte garrantzitsua aztertzen du: ETaren jardueraren amaiera. Muruak 2014an Renoko Unibertsitatean defendatu zuen doktore-tesia izan du oinarri liburu honetan. Ikerlan honek UPV/EHuren kotutela izan zuen



1. irudia. *Ekarri armak. ETaren jardun armatuaren bukaeraren kronika*, argitalpenaren azala.

Lehenik eta behin, egileak izan duen ausardia intelektuala azpimarratu behar da ikuspuntu izugarri kontrajarriak sorrarazten dituen ikergaia murgiltzeko gai izan delako. Euskal gatazka, oraindik ere, orbaindu gabeko zauria da. Horrexek, ikertzaile askorentzat, tabu eta gai hunkibera bihurtu du. Haatik, akademiaren mundutik guztiz beharrezkoa da ikergaia lantzea, gutxieneko distantzia mantenduz eta onestasan intelektuala bermatuz. Ikergaia lantzeko hainbat saiakera egin izan dira. Zenbaitetan, baina, nabaria izan da ikerketa horien atzean dagoen asmo ideologikoa: kontakizuna edo «errelatoaren bataila» irabazteko premia, alegia: «Hau horrela da eta kito» formula zaharberritua. Madrilgo komunikabideetan eta zenbait foro akademikotan

ere badago aspaldi ezarri zen kontakizun *standar* bat: *zuzenbidezko estatuak garaitu du ETA; demokraziak ankerkeriaren aurrean irabazi duen bataila izan da*. Memoriaren bataila dago jokoan, errelatoaren monopolioa eskuratzeko beharra. Errealitatea, berriz, konplexuagoa da. Zenbait aldare intelektual eta mediatikotatik inposatu nahi duten errelato bakar horren azpian nabardura ugari eta gris trama dezente dituen gatazka dago.

Imanol Murua Uriaren obrak ez du kontakizunaren bataila horretan parte hartu nahi. Berak sakon aztertu duen garaia oso zehatza da: 2007-2011 urtealdia hain zuzen ere; hau da Loiolako negoziaketen porrotetik ETAk bere jarduera armatua behin betiko amaitu duela iragarri zuen momentura arteko garaia. Zergatik gertatu zen? Hori da ikertzaile eta kazetari den egileak bere buruari egin dion galdera. *Zergatik orain? Zergatik horrela?* Liburu honen abiapuntua ez da izan *nork irabazi edo nork galdu du bataila hau*, baizik eta *zergatik gertatu da*. Inkognita argitzeko asmoz 34 aurrez aurreko elkarrizketa sakon egin ditu: hamalau alderdi politikotako buruzagi eta buruzagi ohi (besteak beste, Andoni Ortuzar, Patxi Zabaleta, Iñaki Oiarzabal, Iñaki Esnaola, Miguel Sanz edota Pello Urizar), zazpi etakide ohi (besteak beste Antton Lopez, Eugenio Etxebeste, Fermin Santxez eta Carmen Gisasola), bost gizarte-eragile ezagun (besteak beste, Jonan Fernandez, Maite Pagazaurtundua eta Fabian Laespada), bitartekari-lanak egin dituzten hiru pertsona (Juan Maria Uriarte, Ram Manikkalingam eta Paul Rios), Espainiako Auzitegi Nagusietako hiru epaile (Javier Gomez Bermudez —Auzitegi Nazionala—, Adela Asua —Konstituzionala— eta Joaquin Gimenez —Gorena—) eta bi ministro ohi (Jaime Mayor Oreja eta Ramon Jauregi). Denek izan dute beren errelatoa azaltzeko aukera. Denek jarri dute beren alea. Kontakizun bakarra osatzea eta inposatzea ezinezkoa delako, nahiztaezkoa da ikuspuntu poliedrikoa duen *errelatoa* eskaintzea; ez ezer monopolizatzeko asmoz, egiari zor zaion errespetuak horrela agintzen duelako. Egileak ezin izan ditu ETaren amaieraren kronikan protagonista izan diren zenbait aktore elkarrizketatu ikerketa burutu den garaian giltzapetuta zeudelako; Arnaldo Otegi, esaterako. Hala ere, bere lekukotasuna sarritan agertzen da liburuan; batzuetan bere gogoetak Fermin Munarriz kazetariaren *Argien aroa* liburutik hartu ditu eta, besteetan, Bateragune auziko sumariotik bertatik bildu ditu.

Egileak Nevadako Euskal Ikerketa Gunean (Center for Basque Studies) lau urtez taxututako tesian (*The end of ETA: Narratives from the media and from the actors*) oinarritu du bere liburua. Kronika gisan aurkeztu du. Esan liteke kronika sakonaren forma duen ikerketa zientifikoa dela. Horrexek balio erantsia eman dio lanari eta bereziki eskertzekoa da egin duen ahalegin dibugatzailea. Akademia munduan ohituegi gaude doktorego-tesien argitalpenak gure bulegoetako apalategietan ikusten, urtez urte, hautsa pilatzen; inora zabaldu gabe, behar bezala gizarteratu gabe. Liburu hau, ordea, publiko orokorrenzat egina dago eta, orobat, ez du zientifikotasuna galdu; iturrien erabileran zehatza bezain zorrotza eta, kontakizunaren joan-etorrian, atsegina bezain kartsua delako.

Obrak bost atal nagusi ditu: *Krisia (2007-2008)*, non aztertzen den ETaren baitan bi urte horietan izandako debate esanguratsua; *Aurrekariak (1977-2007)*, non Francoren osteko ETaren historiari egiten zaion errepaso (tarte hau ezinbestekoa

da erakunde armatuaren ibilera ulertzeko baita alderdi politiko desberdinek eta garaian garaiko gobernuek izan zituzten jarrerez ere ohartzeko); *Metamorfosia (2007-2011)* atal zabal eta mamitsuena, non erakunde armatuak 2011n hartu zuen erabakia hobeto ulertzeko gakoak eskaintzen diren; *Zergatik orain*, non *terrorism studies* ikerlerroko zenbait ikertzaileren ekarpen baliagarriak egiten diren eta, azkenean, *Epilogo*, non 2011-2015 urtealdian izandako azken jazoeren berri ematen den.

ETAren amaiera ezin da ulertu ezker abertzaleko buruzagiek 2008-2010 urtealdian egindako lan politikoa aztertu gabe. Amaiera horretan beste hainbat faktorek ere esku hartu zuten, jakina, eta horiek ere azaltzen dira obra honetan; baina, seguru asko, faktore erabakigarrienetako bat horixe izan zen: ezker abertzaleko buruzagitza eta ETAren artean izandako harreman/topaketa/tupusteko sorta hori. Arnaldo Otegiaren gogoeta honek iragarritako amaieraren kronika hobeto ulertzen laguntzen du (200. or.): *Egun norbaitek aholkua eskatuko balit borrokarako erabili beharreko bitartekoen gainean, baldintzak direnak direla ere, argi eta garbi esango nioke borroka bide baketsu eta desobedienteak erabiltzeko, bai arrazoi etikoengatik, bai politikoengatik.*

Gatazken konponbidearen ikuspuntu akademikotik, ETAren amaierak ez du parekorik: alde bakarreko erabakia izan da. Ez da izan parez pareko negoziaketarik Aljerreko prozesuan egon zen bezala (1989). Muruak berak dioen legez (223. or.), *negoziazioa, azkenean, ezker abertzale barruan egin behar izan zuten.* Aurrerago, gehiago zehazten du (238.-239. or.): *Hitz batean, ETAren jardun armatuaren bukaera ezker abertzale osoaren transformazio sakonaren ondorioa da (...). Porrot estrategikoaren aitortzarekin [estrategia politiko-militarra] abiatutako transformazioak arrakasta politikorako aukera zabaldu dio (...). Hau da, porrotaren aitortzak arrakastarako aukera ekarri dio.*

Muruak, aipatu 34 elkarrizketetan bildutako informazioaz gain, hainbat iturri dokumental ere erabili ditu, era eta kolore askotakoak. Gehien-gehientsuenak publikoak dira. Beste batzuk, oso gutxi, berriz, konfidentzialak. Horietako bat da Joseba Egibarrek liburuaren egileari aitortutako hau. HBko buruzagi ezagun batek, konfiantza momentu batean, zera esan zion behin Joseba Egibarri (227. or.): *Guk joan beharko genuke beste aldera eta esan hauei: hau bukatu da, ekarri armak hona, hau politikatik egin behar da.* Egileak hauxe gaineratzen du: *Orduan ez zen posible izan. Orain bai.*

Txema Ramirez de la Piscina